

## Ipar-Euskal Herriko eta Hego-Landesetako Kolapsonauten xarta.

Guk, "Euskal Herriko eta Hego-Landesetako Kolapsonautak", gure planetaren egoera objektiboa eta kritikoa gure egiten dugu : klima-aldaketa, bioaniztasunaren desagertzea, baliabide naturalen bukaera ... Horiek eragin dezaketen eragozpen emozional eta teknologikoetatik haratago, epe laburreko eboluzioa eta gizartearen gain izanen diren ondorioei begirada argi bat ematen diegu. Gure ustez, iraultza industrial, produktibismo ezberdinak (kapitalismoa barne), leherketa demografikoa, gizarte termoinustrial guzien epe laburreko kolapsoaren arrazoi nagusiak dira eta ondorioz hainbat gizarte primitiboen kolapsoarenak ere. Giza espeziaren parte batzuk dira fenomeno horien arduradun eta ez giza espeziea manera uniforme eta osoan.

Guretzat "Kolapsoa"-ren definizioa hau da : bizitzeko beharrak, elikadura, ura, osagarria, etxebizitza, sekuritatea ez direlarik, Estatuak kudeatzen dituen zerbitzuek hornituak. Kolapsoak, haren fase zailenean planetako giza populakuntzaren ttipitze azkar baten forma hartuko du, eta bizirauten dutenen bizimoldearen iraulketa izanen da ere.

Guretzat Kolapsoa, gerta daiteke 2025 aintzin, mentura handiz 2030 aintzin eta kasik segurra da 2035 aintzin. Kolapsoa, prozesu gisa jadanik hasia da eta ezin daiteke gelditu. Hainbat muga geografiko gairituak izan dira, gibel egiteko aukerarik ukan gabe.

Gauean aipatuak diren elementuak onartutzat hartzen ditugu, eta ez dira eztabaidagai izanen gure taldean. Informazio horiek eragin dezaketen zailtasun emozional eta ez onartze erreakzioez kontziente gira. Hala ere gure lurraldeko biztanleak bihotz onez errespetatuko ditugu, gure mugimenduari begira gaitz-erranak, edota isekagarriak baldin badira ere. Hain zuzen ere, badakigu erreakzio psikologiko ainitzek, Kolapsoaren ukatzea edo ez onartzea eragin dezaketela.

Gure lurraldea, Ipar Euskal-Herria eta Landes hegoaldeak osatzen dute, Aturriren bizi-eremu inguruan. Lurralde horretan jadanik lekuko alternatiba ugari daude. Hauek begi onez eta positiboki begiratzen ditugu. Ondorioz gure desmartxa, jadanik existitzen diren alternatibetan oinarritzea izanen da, hauen bultzatzaileei Kolapsoari prestatzeko beharrezkoak diren egokitzeaz ohartaraztea saiatuz. Hau ez badugu lortzen baizik ez gira entseaturiko alternatiba berdintsu batzuen sortzen, Kolapsoarekin bateragarriak.

Orokorrean, pentsaketa eta ekintzen arteko oreka da gure desmartxa. Guk "Halte à la croissance" Erromako klubeko txostenarekin bat egiten dugu baita kolapsologo lanekin ere. Baina gero eta ugariagoak diren ezagutza akademikoaren gureganatzeaz at, nahi ditugu bizitzeko beharrei lotuak diren jakitateak deskubritu edo berreskuratu, horiek epe laburrean gerta daitekeen energiaren behar handiaren kariatara. Lurrarekiko loturarik gabeko

bizimoldearen berri ezagutuz, gure ingurumenari berriz lotu nahi dugu eta desmarta progresibo batean, bizimodu xumearen printzipioak aplikatu.

Gure lehen helburua, Kolapsoari sentsible den gure lurraldeko jendea bateratzea da. Gure biziraute xantzak handitzeko, prestakuntza eta egokitze desmarta kolektiboak sortu nahi ditugu aintzin-Kolapso fasean.

Gure bigarren helburua, berez lehenari lotua, entzute eta emozioen harrera-gune baten sortzea da, oraingo egoeraren kontzientziatzea laguntzeko hein psikologikoan baita mingarriak izanen diren estrapolazioak laguntzeko ere.

Gure hirugarren helburua, lurraldeko biztanle eta instituzioekin elkarlanean aritzea da.

Ez dugu publiko zabalari komunikatuko, baina, lurraldeko komunikazio gunetan agertuko gira, sentsibilizatua den jende guziari irekiak diren ekimenetan. Gure mugimenduan zehaztuak, izendatuak edo hautatuak izanen dira gure ordezkariak. Pentsatzen dugu espiritualitate baten (norberarena edo partekatua) xerkatzea, baina beti ere, beste gizakiak edo gizakiak ez direnenekin konektatuz baitezpadakoa dela.

Independenteak gira, bai politikoki, bai erlijioari begira ere. Gurekin bat egitera deitzen dugu edozein pertsona, adina, generoa, erlijioa, jatorri geografikoa, kultura, sexu orientazio duena, xarta honekin bat egiten badu, eta gure balore eta helburuak partekatzen baditu.